

Euskaltzaindiaren literatur sariak, Barrio, Igartua eta Arriolabengoarentzat

Eleberri saririk ez dute eman, epaimahaikoen ustez lanetako batek berak ere ez duelako merezi izan

ZUBEROA ITURBURU Bilbo

Pablo Barriok, Karmele Igartuak eta Julen Arriolabengoak jaso dituzte Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren aurtengo literatur sariak. Barriori Toribio Altzaga antzerki saria eman diote, *Kontrako bidean* lanagatik. Igartuak, Felipe Arrese Beitia olerki saria eskuratu du, *Hitzak orbairetan* poema liburuagatik. Arriolabengoak, berriz, Mikel Zarate saiakera arloko saria jaso du, *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan* ikerketa lanagatik.

Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak atzo banatu zituzten sariak, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. «Euskara eta euskal literatura sustatzea dute helburu», Andres Urrutia euskaltzainburuak esan zuenez. Kulturaren alde egiten duten lana eskertu zien idazleei, eta «sari bat eman gabe geratu bada ere» sariketan parte hartzeko eskatu zuen.

Txomin Agirre eleberri saria utzi dute eman gabe, hain zuzen. Lau nobela aurkeztu zituzten sail horretan. Sebastian Gartzia Trujillo epaimahaiko kideak azaldu zuenez, «lanen artean gorabeherak daude, eta idazle batzuk besteak baino trebeagoak izan dira», baina «ez dute merezi izan» saria eramaterik. Hainbat argudio eman zuen erabakia arrazoitzeko.

«Gaurko historia bat errealtasun handiz kontatu du Barriok; trama bizia du eta bukaera itxaropentsua»

PATRI URKIZU
ANTZERKI ARLOKO EPAIMAHAIKO KIDEA

«Igartuak sentimenduez mezu esanguratsua igorri du, eta hitzen bidez egitura estetikoak sortu du»

LOURDES OTAEGI
POESIA ARLOKO EPAIMAHAIKO KIDEA

«Merezimendu osoak ditu Arriolabengoaren lanak, ez bakarrik lanagatik, baita ikerketagatik ere»

ADOLFO AREJITA
SAIAKERA ARLOKO EPAIMAHAIKO KIDEA

«Historiek ez dute nahikoa interesik, eta historiak egituratzeko moduan ere ez dute asmatzen», adierazi zuen. Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza izan ditu lagun Gartzia-ri epai lanetan.

Joserra Bilbao BBK-ko ordezkariak ere auzi hori ekarri zuen gogora. Haren ustez, saria ez emateak seriotasuna aitortzen dio lehiaketari, ez baita kanpora begira irudi bat emateko egiten. Epaimahaia- ren zorrotztasuna ere agertzen eitu.

HIRU SARI, BESTE HAINBESTE ARRAZOI. Antzerki arloan zortzi lan aurkeztu dituzte. Beste sailetako idazlanen bikoitza, eta hainbat kasutan, gehiago. Horregatik, aurtengoa urte interesgarria izan da antzerkiarentzat, Patri Urkizuren iritziz. Urkizu bera ez zen sari banaketan egon, eta Pello Telleriak irakurri zituen haren hitzak. Urkizu antzerki sariko epaile gisa aritu da, Eugenio Arozena eta Daniel Landartekin batera.

Pablo Barrio lasartearraren *Kontrako bidean* lana aukeratu dute irabazle. «Gaurko historia bat errealtasun handiz kontatu du, pertsonaiak oso landuak daude, trama bizi-bizia du, baita bukaera itxaropentsua ere», Urkizuren hitzetan. Zahar etxe batean kokatzen dira gertaerak. Pertsonaiak lehen planoan daude, eta zerbitzu publikoen kudeaketa pribatizatze-ko joera atzetik. Urkizuk aitortu duenez, «laster ikusi nahi genuke agertokietan».

Olerki arloan, hiru lan lehiatu dira. *Hitzak orbairetan* liburuak lortu du saria, Karmele Igartua aretxabaletarrarenak. Jon Kortazar, Mikel Laso eta Lourdes Otaegi izan dira epaileak. Otaegik beste bi lanak goraipatu zituen, baina irabazlearen poesia nabarmendu zuen. «Irakurleari mezu esanguratsua igortzen dio giza sentimenduez, eta hitzen bidez egitura estetikoak eta edertasuna sortzen du».

Ikerketa lan batek jaso du saiakera saria, azkenik, Julen Arriolabengoak aramaioarraren *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan* tesiak. Antton Aranburu, Iñaki Aldekoa eta Adolfo Arejitak osatu dute epaimahaia kasu honetan. Arejitak esan zuenez, «merezimendu osoak» ditu lan horrek, «ez bakarrik lanagatik, ikerketagatik ere bai». XVI. mendean idatzi zuten, Ibarguen eta Cachopinek, *Crónica General Española y Sumaria de la Casa Vizcaína* kronika, gazte-laniaz. Bertako euskarazko testuak aztertu ditu Arriolabengoak.



Arriolabengo, Igartua eta Barrio, atzo, Bilbon. MARISOL RAMÍREZ / ARCAZKO PRESS

Sinesmen zaharrak ipuingai Joseba Aurkenerenaren liburu berrian

ERREDAKZIOA
Donostia

Euskal Herriko sinesmen zahar eta historiako kontuetan oinarritutako 20 ipuin batzen ditu Joseba Aurkenerenaren *Sorgin mailuak dabiltz* liburuak (Maiatz). Ipuin horien bidez, «Euskal Herriaren ezagupena bultzatu» nahi du egileak, eta baita «euskalkien jakintza» ere, batez ere ikasle gazteei begira.

«Pelot kapitaina, karlistak, sorginak, pilota edota kontrabanda hemen dira dantza batean bezala, ibiltzen garelako Zuberoako bortue- tatik, Bizkaiko lareetaraino», dio liburuaren kontrazalak. «Modu atseginean, Joseba kontalari lane- tan dabil, esku eta bidai liburu bat eskaintzen digula».

Beste liburu bat ere argitaratu du Aurkenerenak aurtengo udazkenean: *Euskaldunon mundua hizpide* (Gero-Mensajero).

BERRIAK gonbidatzen zaitu harpidedunentzat 20 sarrera ditugu



KIKO VENENO & La Banda del Retumbe

Durangoko Plateruena Kafe antzokian, abenduaren 22an, 22:00etan.

deitu: 943-30 43 45

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**